

HISTORIA

Oraintsu arte nahiko ezezaguna izan da Aramaioko lurraldea. Eta ez da harritzekoa: mendi artean gordea dago, errepide nagusietatik urrun. Araba izanik, Bizkaiko foruak ditu, eta bertako gehienek egiten dute Gipuzkoan lan... Euskal Herriko bihotzean kokatuta dago, hiru probintziak bat egiten duten unean. Elorrio, Abadiño, Otxandio eta Arrazolarekin ditu mugak Bizkai aldean. Arrasate eta Leintz bailarako herriekin Gipuzkoa aldean. “Besaide” edo “Larrazabal” zelaian datza hiru probintziak mugatu eta lotzen dituen mugarrria. Anboto, Oriol, Udalaiz, Arangio, Durakogain, Jarindo, Murugain, Belamendi... lirateke inguruko mendi tontor garaienak eta ezagunenak.

Mendietan zehar kantari jaisten diren errekatsoak “Aramaio” ibaia osotzen dute; eta honek “Deba” errekarari daramazkio bere urak, Arrasateko sarreran.

Eusko udalerrien artean zabaletarikoa da: 72 kilometro karratu inguru ditu. Hirutik bat “Gainbarru” edo bailaran. Gainontzekoa, Albinagoia, Albinabea eta Armola izenekin eza-gutzen diren mendi zabaletan. Gainbarruan daude Aramaioko lehen zortzi elizateak: Arexola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Ibarra, Untzilla eta Uribarri. Bederatzigarrena XV. mendean jaio zen gainbarrutik kanpo, Otxandiotik gertu, eta Olaeta izena jarri zioten.

Elizate bakoitzak bere eliza eta ermitak ditu, eta oraintsu arte, bere apaiza. Denak dira burujabe, besteen menpetasunik jasan gabe.

Orain ehun urte, bi mila biztanle inguru ziren udalerri osoan; gaur baino seiehun bat gehiago. Erdiak inguru beti Ibarran bizi izan dira. Gaur egun, zerbait gehitxoago...

Auzoetako biztanlegoa murriztu bada, ez da izan baserriak itxi direlako, familiak, Euskal Herri osoan bezala txikiagotu direlako baizik.

Ez dago baserri hutsik; baina oso gutxi dira baserria ogibide nagusitzat daukatenak. Arrasate eta inguruko lantegietan dihardute gehienak, nahiz eta baserrian abere gutxi batzuk (geroago eta gutxiago) eduki edo lur pixkaren bat landu. Bertan ez dago inolako fabrikarik, Oletako “Limitado” izeneko lurraldean, Otxandio ateetan izan ezik. Azkoagan esnebehien abeltzgi bat dago, eraiki berria, eta Oletan beste bat handiagoa eta aspal-dikoa; eta txerritegi bat Albinabea, milaka txerri dituela.

Oso menditsua da Aramaio, eta honek bideratu du bertako bizi tankera. Garai luze batean, mendiak oso aberats zeuden zuhaitz, egur eta abereetan, eta askoren bizibidea bertan zegoen. Albinagoian, Oleta inguruan, aurkitzen ziren Estaduko haritzik handienak, erregeak gerrako ur-ontzi bereziren batzuk egiteko bahituak. Eta inguruko burdinola eta sutegetarako ikatza bertan egosten zen.

Gaur egun gauzak aldatuak daude: abere gutxi dago, eta jatorrizko zuhaitz motarik asko zeharo galduak. Euskal Herri gehieneran bezala, mendiak era ezberdinetako pinuekin jantziak daude eta aldakuntza haundia jasan dute azken berrogei urte hauetan. Txori askok ihes egin du, iturri ugari lehorte dira, pizti mota batzuk ugaritu, eta mendian edo menditik bizi ziren asko lanik gabe gelditu...

Garai batean mendiak eta bertako zuhaitzak jauntxoarenak edo udalarriarenak ziren. Gaur gauzak aldatuak daude: bai udalak eta bai konteak ba du oraindik Aramaion mendirik asko, baino gehienak jadanik ez dira beraienak. Baserri guztiek dute, gutxi asko, beren mendia edo mendiak; jabetasuna oso banatua dago. Egoera honetara nola heldu garen ikusiko dugu Aramaioko kondaiari begiradatxo bat eginez...

Historian zehar...

Berandu samar agertzen da Aramaio historian: XIII. mendearen azkenerarte gauza gutxi dakigu. Ordurako jaurreri zen nahiko tinkatua. Horrek esan nahi du askoz aurretik bazeudela baserriak eta jende multzo bat... Baina garaiko hondarrik ez zaigu heldu guganaino, eta bakoitzak idurikatu lezake aurreko egoera bere jakituria eta irudimenaren arabera... XIV. mendearen hasieratik honuntz jarraipen zehatzagoa egiteko gai gara. Mende horretan, amaierako behintzat, elizate gehienak antolatuak zeuden, beren elizekin. Gaurko elizak, harrizkoak, XVI. mendean eraikiak dira, Ibarakoa ezik: hau XIX. mendekoa dugu. Aurrekoa bota egin zuten jausteko arriskuan zegoelako.

Erdi Arotik honuntz 30 ermiten berri izan dugu Aramaioko lurretan. Erdiek gaur arteraino iraun dute, eta aurrera jarraitzeko gai izan daitezen konponduak izan dira. Bide bazterretan kokatuak batzuek, bidaztien babes; mendi gailurretan besteak ekaitzaren euskarri... Jatorrizko tankeran bat ere ez da heldu guganaino, baina erromaniko hondar batzu bai, hirutan behintzat: Gureiako Santiagon, Arragako S. Pedron eta Jarindoko S. Joanen.

Barajuen auzoa Aramaioko haranaren erdian dago, mendi bizkar baten gainean. Toki eguzkitsua, eta inguruak zaintzeko aukerakoa. Horrela ikusi zuten bertako jauntxoek, eta gaur egun "torralde" izenaz ezagutzen dugun gailurrean eraiki zuten dorrea. Garai-ko idatzietan izen ezberdinez aipatzen dute: *Castillo, Torre, Fuerte, Palacio*... XIV. mendetik behintzat han zegoen, eta han jarraitu zuen XVII. mendearen erdi ingurururarte. Oso sendo tinkatua eta atzemangaitza izan behar zuen, ugazak hiru astez inguratuta eduki arren hartu gabe utzi behar izan bai zuen, Lope de Zalazar Jnak dion bezala: "*e la casa era fuerte e vastesida, no la pudo tomar e ovo muchos omes feridos e muertos en los cambates...*" (Bienandanzas a Fortunas., por Lope Garcia de Salazar)

Dorre honen gerizpe gaiztoak ilundu zizkien aramaiotarrei Erdi Aroko egunak. 1338an Aramaioko jaurreria eta Muxikakoa jauntxo beraren menpe gertatu ziren. Eta larogeita hamar urte geroago baita Butroikoa ere. "Gómez González de Butrón" izan zen hiru jaurreri hauen lehen buruzagia. Esteban Garibaldi Arrasateko kondailariarentzat "garaian Bizkaian zegoen zaldun ahaltsuena"; beste askorentzat astakirtenena ere bai... Gaitz izenez "Bizkaiko basurdea" deitzen zioten, eta Oñazarren buruzagia zen Ganboatarren aurkako borroketan. Bermio, Otxandio, Legazpi, eta Bizkaiko hainbat herrik jasan zituen haren erasoak... Azkenik Arrasaten hil zuten, 1448an, San Joan bezperan, ganboatarrak herriari sua eman ziotenean. Aramaiotarrak aspertuta zeuden haren astakeriekin, eta, nahita nahiez, bere borroketara joan beharrekin. Kostaldean zebilen bitartean Barajuengo Gaztelua ostu eta bere etsairik haundienari eman zioten: Ganboatarren buru zen Abendañoko Peruri. Bere bizitzan, nahiz eta ahalegindu, ez zuen lortu berreskuratzea.

Bazituen, nola ez, lagunak ere Aramaion. Horietariko bat Mendiolako Iohannes. Mendiolako baserriari "Aramaioko giltza" deitzen zioten. Elorrio bide baztarrean zegoen, Aramaioko sarreran, Bizkai aldetik. Dorretxea zen. 1443an Abendañoko Peru honek 26 etxe erre zituen Aramaion, Gómez González Bizkai aldean zen bitartean. Eta Mendiolako Iohannes jauna izan zen, jipoi ederra eman ondoren hankak altxarazi zizkiona. Euskal literaturan zaharrenetarikoa den garaiko kantuak honela aipatzen du Peruren ihesaldia:

" Izarragatik gora elzian joeala
Jaun Peru Abendañokok esala:
Oñetako lurrau jabilt ikara
Gorputzeko lau aragiok bezala...
Oi, aldioneri albanegi enpara,
Barriz enendorke Aramaioko kontrara.
Mendiola, il deustak Gasto Apala
Bere laguntzat beste asko ditubala..."

(*Textos arcaicos vascos*. Ediciones Minotauro. Luis Michelena).

Arrasateko erreketaren ondoren, Ion Alonso Muxika Butron izan zen Aramaioko Jauna berrogei urte inguruz. Berreskuratu zuen Barajuengo gaztelua, ez dago garbi indarrez ala diruz, eta egonaldi luzeak egin zituen bertan. Eta astakeria ugari ere bai. Gaurarteraino igaro da bere bortxakeria eta zapalketen berri, eta Barajuengo jauntxoaren izen txarra batez ere berari zor zaio.

Hasteko, aramaiotarrei leporatu zien Arrasateko kaleetan izandako aitaren heriotza. Atxaki horrekin bere esanetara jarri nahi ez zuten batzuek eskegi zituen gazteluko almenetatik. Gartzelatu eta zigortu zituen bere etsaiei lagundu zietenak, batez ere aitari gaztelua harrapatu zietenak. Herria zergaz kokoteraino zamatu zuen, eta zeharo beldurrak jota zegoen. Nahi zituen emakumeak, ezkondu nahiz ezkongai, gaztelura behartuta eramaten zituen, bera eta bere morroien atsegingarri.

Egoera larri honetan, aramaiotarrek erregearen babesa eskatu zuten, eta Arabako anaidiekin elkar laguntzeko elkargo bat izenpetu. Isabel erreginak epaile bat bidali zien herriaren salakuntzak entzuteko, eta salatzaileak bere babesean hartu zituen.

Hau izan zen herriaren lehen aukera jauntxoaren kontra zeuzkan guztia agertzeko, eta ondo aprobetxatu zuen... Epaia luzea eta zabala izan zen. Eta garaiko ohiturak, legeak eta jokaerak ezagutzeko lagun bikaina dugu.

Auzia amaitzerako Ion Alonso aspaldian ila zegoen. Baina bertan hartutako erabakiak zerikusi haundia izan zuten geroko denboretan.

1.489.eko urtarrilaren 9an izenpetu zuten Aramaiok eta Arabako Anaidiek elkar laguntzeko konpromezua. Aramaiok Anaidien legeak onartzen zituen eta elkargoan beti jarraitzeko hitza eman ere bai, baina bere lege zaharrak eta fueroak galdu gabe, Bizkaiko Jaurreriaren kide izatetik zetozkion fueroak. Anaidien agintari nagusi Arabako Diputatu Jenerala bilakatzen da, eta geroz eta indar gehiago izango du. Aurrerantzean, Aramaioko jaunak ez dira Barajuenen biziko, eta bailarako bizitza asko aldatuko da. Zorionez amaitu dira Ahaide Nagusien arteko borrokak, batez ere erregeen eraginez. Borrokalariek beste borroka mota batzuetara joan dira, etxetik urrun.

Alonso Idiaquez Muxika Butron, Espaniako erregearen izenean Italiako Milanon erantzukizun haundiko gizona, Aramaioko jaun izatera heldu zen. Felipe III erregeak asko maite zuen eta jaurreria konterri bihurtu zion. 1.606. urteko abenduak 7 zen. Harrezkero Aramaioko jaunek Konte izena eramango dute, gaur arteraino.

Hogeita bost urte geroago dorrea azkenetan dago. Inor ez da bertan bizi eta teilatua kendu diote. Laster kenduko dizkiote harriak ere... Aipatua dugu mendi guztiak, gainbarrukoak kendu ezker, kontearenak zirela. Horrela jarraitu zuten 1.771. urterarte.

Garai hartan Joakin Osorio zen Aramaioko kontea. Eta kokoteraino egina zegoen mendiei buruz izaten zituen borrokekin. Izan ere, mendiak eta bertako zuhaitzak kontearenak baziren ere, aramaiotarrek betidaniko eskubidea zuten urterako su egurra, eta etxeak, zubiak edo elizak eraiki edo konpontzeko behar zutena kontearen basoetatik hartzeko. Edo aramaiotarrek behar baino gehiago hartzen zutelako, edo konteak kanpora salduz etxeak premiazkoa, zuten egurrik, gabe uzten zituelako, beti zeuden borroka eta epaimahaietan. Behin betiko auzia erabaki nahiez, Osorio jaunak mendiak erdibanatzea erabaki zuen. Bata Aramaiori eman zion eta bestea berarentzat hartu zuen. Bakarrik bideak eta arangio edo larreek jarraituko zuten lehen bezala. Akordio honekin Aramaio, uste-kabea, 2.000 eta gehiago hektareen jabe egin zen.

Ehun urte baino lehenago gehienak saldu behar izan zituen Prantsesen eta Karlisten gerretan egindako gastuak ordaintzeko. Aramaiotarrek erosi zituzten. Gaur egun ez dago, gutxi edo asko, bere mendia ez duen baserriak

Lanbideak

Jatorritik, Aramaio, Euskal Herriko beste zenbait lurralde bezala, abere eta nekazaritzatik bizi zen. Mendietan haritz eta pagoak ziren nagusi, eta hutsune gutxi zegoen eguzkitan etzateko. Basabehiak eta behorrak ziren, batik bat, mendietan larratzen ziren abereak. Eta, udazkenean, txerriak ugari eskurrez gizentzeko.

Zuhaitzak murriztean, larre eta zelaiak gehitu ziren, eta ardiak ugaritu, batez ere XIX. mendean eta gero. Ahuntz banaka batzuk ere larratzen ziren haitzetan, baina ez zeuden ondo ikusiak landare berriak jaten zituztelako.

Zuhaitza oso garrantzitsua zen etxe, eliza eta zubiak egiteko, eta surtarako. Eta guztiz beharrezkoa burdinolentzat.

Euskal Herriko lurrak, Nafarroa eta Arabako batzuk kendu ezker, nekazaritzako nahiko aldrebesak dira. Eta areago artoa eta patata Ameriketatik ekarri aurretik. Horregatik ez ziren interesagarriak izan ez erromatarrentzat, ez arabiarrentzat. Eta horregatik iraun ahal izan dute herri txiki honen hizkuntzak eta ohiturek mendeetan zehar. Lantegiekin pixkat aberastu ginean etorri ziren beste hizkuntza eta ohiturak zituzten pertsonak, eta ondorioak ezagutu ditugu.

Nekazaritzak ez zuenez ematen bizitzeko aina, aramaiotarrek beste lan mota askori heldu behar izaten zien. Aipatuko ditugu garrantzitsuenak:

a) **Burdinointza.**— XIV. mendearen hasieratik XX. mendearen hasiera arte. Zortzi burdinola behintzat izan dira. XIV. mendearen erdialdian bat edo bi zeuden; besteak geroago eraikiak izan dira. Eta beraien inguruan, sutegiak. Olaeta, izenak ere hala dio, burdina lantzeko eraikitako elizatea dugu. Bertan, lau ola eta sutegi bat, behintzat, izan dira. Ibarra hiru olen berri badaukagu: bi urolak eta hirugarrena haizeola. Eta hogeita hamairu sutegi batera. Bakoitzak zazpi familia mantetzen zituela esaten zen.

Zaldien perrak, ahokoak eta oin burdinak egiten ziren, batez be, lehen batean. Geroxeago untzak; eta beti nekazaritzako tresnak: gurdiak, aitzurrak, aizkorak... Hasieran, burdin-lurra bertako meatzetan ateratzen zen. Laster agortu ziren, eta gerora Bizkaiko meategietatik ekartzen zuten. Burdinola guztiak kontearenak ziren, eta urte batetik seira alokatu ohi zituen.

b) **Ikazkintza.**— Burdinolak eta sutegiak ikatz asko behar izaten zuten. Burdinola bakoitzak sei mila sakutik gora urtean... Horregatik aramaiotar asko ziren udaberriaren hasieratik azaroaren azkenerarte lan horretan jarduten zutenak. Ikatza egiteko, batez ere, bederatzi urtetik behin inausten ziren pago adarrak, eta ihertuta zeuden pago gerriak eta buruak erabiltzen ziren. XIX. mendean Oletako burinolek lanean jarraitzen zuten. Ibarra-koak aspaldi itxungiak zeuden. Baina sutegi asko zegoen eta ikatz ugari egiten zen Aramaiorako eta inguruko herriendako, Otxandio, Arrasate eta abarretarako. Mendiak gutxitzen joan ziren landare berri gutxi jartzen zelako. Baserritar askok, nahiz berez nekazaria izan eta abere batzuk etxean eduki, udako hiletan ikazkintzan jarduten zuen, baserriko sarrerei txanpon batzuk gehitzeko. Ohitura honek oraintsu arte iraun du, mendiko pagoak agortu ziren arte.

c) **Nekazaritza.**— Hau izan da Aramaioko lanetan zabalena. Edozein lurraldetan, lehen agindua sabela betetzea izaten da; eta horretarako betegarriak aukeratu behar...

Garia izaten zen ardurarik gehien sortzen zuena. Diru ordeztu gauza askotarako erabiltzen zen, osagileari, apaizari edo ugazabari zor zitzaiona ordaintzeko. Eta "eguneroko ogia...", urte guztirako, bere bizkar zegoen. Lurrak nahiko belartsuak ziren, eta ondo

zaindu behar garia ito ez zedin. Euri larregiak, lastoa motz eta galburuak txiki eta urri. Eta txingor edo harriteek, urte guztiko gosea zekarten berekin. Horregatik mendi tontorretan bazen gurutze eta ermitarik asko ekaitzari eusteko; eta herri osoa prozesioan joaten zen bertara santuen bitartez Jaunaren erruki eske.

Baserri batzuk, lur onak eta ugariak zituztelako, urte guztirako garia hartzen zuten. Zorionekoak halakoak...! Gehienek, maiztarrenak izanik ugazabari kopuruaren atal nagusi bat eman behar zitelako, edo lur aldrebesagoak edo gutxiagoak zituztelako, ez zuten lortzen nahiko ogi janda urtea igarotzeko garia. XVII. menderarte artotxiki, garagar, olo edo ezkurra izango zuten lagungarri. Ordutik aurrera, Ameriketatik etorritako artoa. Arto opil eta ogia, taloa eta morokila janari arruntak izan dira gure artean orain berrogei urterarte.

Herriko giroa

Luziano Jauregiren haurtzaroan bazeuden oraindik Ibarran untzeginak eta ehuleak. Baina denbora gutxiko bizia zeukaten. XIX. mendean zuhaitzak beherakada haundia egina zuten, eta larre asko agertu zen. Basa-ganadua ugaritu zen, eta mendi-baserriak ere bai, nekazaritzatik baino ganadutzatik gehiago bizi zirenak. Burdin-lanarekin batera ikazkintza ere gutxituz zijoan, nahiz, nolabait gure egunetararte iraun. Bizkaiko legeari jarraituz, seme edo alabaren bat, gurasoak aukeratzen zutena (gehienetan zaharrena) baserriko oinorde bakar gelditzen zen. Besteek ahal zuten eran eta tokian bizibidea bilatu beharko zuten. Neba-arreba asko izaten zirenez, danerako jendea egoten zen: ezkontzarako, prailatzarako, apaizgintzarako, monjatarako,...

Hanka gainean ibiltzen ikasten zen unetik, ez zen paltako zereginen bat baserrian. Txiki eta haundi, denentzat izaten zen zeregina: ardi edo behi, edo senide txikiagoa zaindu, aitari lagundu, errekaduak egin... Sei-zazpi urtekin herriko eskolara, ahal zenean. Maisu bakarra, umez inguratuta, irakurtzen eta "lau operazioak! erakusten ahaleginduko zen. Hortik gora gauza gutxi.

Umetan urte batzuk morroi egotea gauza normala zen. Beti izaten zen baserriren bat une hartan umerik ez zuena, eta "ume lanak" egiteko, neskabila edo mutikoren baten priman zegoena. Bestalde, nagusien iritziz, oso onuragarria zen urte batzuk amaren magaletik kanpo egitea, beste etxe batzuetan txakurrak ortozik zebiltzala norberen begiz ikusteko. Mutikoak edo neskakilak, pixkat gogortzen zenean, eskola utzi eta erabakia hartu beharko zuen geroa prestatzeko. Neskarentzat arazoa mugatua zegoen, ez zeukan irtenbide larregirik: monja sartu edo ezkontzeko bideak egin. Zegozkion ofizio bakarrak sukalde edo jostea ziren. Ama arduratzen zen ahal zuen mailaraino biak erakusten. Asko nekame joaten ziran, "zeozer ikasten", etxeko jakituria gehitzeko. Beste batzuk baserri lane-tan jarduten zuten gizonak bailira.

Mutilek aukera gehiago zeuzkaten: ofizio bat ikasi (arotz, hargin, errementari,...), lantegiren bat bilatu inguruan edo urruti; gudari karrera hartu; praille edo apaiz egin... Oso gutxi izaten ziren ikasketa gehiago egiteko aukera zutenak.

Etzetik kanpora zihoanak izango zuen gurasoen laguntza, ahal zen eran, arreo edo dotearen bidez. Mutilzar edo neskazar jaiotetxean gelditzen zenak “maixazko” edo “etxe-koandreaken” menpean egon beharko zuen, etxeko lan eta gauzetan behintzat. Eskubidea zeukan, jaiotetxean biziz, etzetik kanpo lana egiteko, ostatuaren orde zerbait lagunduz.

Erljioak eragin haundia zeukan. Bizitzako une guztiak erljio kutsuz beteak zeuden. Egunean hiru edo lau aldiz auzoko kanpaiak gogorarazten zuten goiz, eguerdi edo gaueko otoitza, edo meza edo errosarioaren denbora. Etxeetan, jan orduko otoitza eta gaueko errosarioa eguneroko gauzak ziren. Igande eta jai egunetan meza eta bezperak.

Urtean zehar hainbat prozezio, errogatiba, eta abar. Garizuman sermoiak. Urteko egun berezietan, prailea aitortza egin eta Jauna hartzeko...

Eleiz gauza eta elizgizonek itzal haundia sortzen zuten. Gizarte sagaratu hartan oso garrantzitsuak eta eraginkorrak ziren eleizgizonak. Txoki askotan, ikasketa gehitxoago egindako pertsona bakarrak. Eta baserritarrek baino erretxuago bizimodua ateratzen zutenak.

Giro honetan ez da harritzekoa abade, praile edo monjatarako “bokazio” ugari sortzea. Batetik, neska-mutilak ohituta daude etzetik kanpo, inoren menpean, agintzen dietana ixilik eginez, bizimoduari atsedeen larregi eskatu gabe bizitzen. Ez zaio trauma gertatu-ko, etzetik urrun, disziplina baten azpian bizi beharra.

Bestetik, otoitzean ohitua dago. Otoitz luzeak egiten, edo jasaten: hiletak, mezak, errosarioa... Egia da, bokazioa hori baino askoz gehiago ere bada, baina joaterakoan ez da larregi ohartzen. Ikasketa eta heziketa urteetan baieztatu beharko du, astiro eta sakonetik, ume gisa, lar pentsatu gabe hasitako bidea.

Euskal giroa ez da inoiz galdu Aramaion. Ibarran burdinolak eta sutegiak bizi-bizi zeuden garaian etorri ziren atzeritar batzuk, baina bertako bizitzan buru-belarri sartu ziren. Ordutik aurrera atzeritar gutxi etorri da lantegirik ez delako izan. Urte batzuetan, XIX. mendean, bainuak hartzera etortzen zen era askotako jendea. Baino egun gutxi egiten zituen gure artean, eta giroan ez zuen eraginik. Aramaiotarrik pranko atzerrietara joan izan da; baina gutxi izan dira honera kanpotik etorriak. Eta hemengo hizkuntzak, izateak edo giroak beste toki batzuetan baino jatorrago iraun ahal izan du.

Azken urteetan gauzak asko dihoaz aldatzen. Baina hori beste kontu bat da...

Jesus Mari Elejalde